



euskal mendizale federazioa
FEDERACION VASCA DE MONTAÑA
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION



KARRAKA OROZKOKO VII. MENDI LASTERKETA 2012ko MAIATZAREN 6a

ARAUAK:

1-. DATA eta LEKUA: Lasterketa Orozkon 2012ko maiatzaren 6an izango da eta irteera goizeko 10:00etan izango da (*kadete eta junior kategoriakoek Algortako larreatatik goizeko 11 eukingo daurie Irteera*). Dorsalak egun horretan banatuko dira 8:45etik 9:00etara eta horiek jasotzeko izen ematearen ordainagiria aurkeztu beharko da.

2-. IBILBIDEA: Orozkotik irten eta Orozkora helduko da. Ipergorta eta Oderiaga tontorrak dira helburu nagusi. 27 km dira 1800 metroko desnibel positiboarekin. Ibilbidean zehar basabideak, bidexkak eta inguru karstiko oso teknikoak egongo diran.

3-. PARTE HARTZEA: 18 urtetik gorako edonork parte hartu ahal dau (**). Parte hartzeko kopurua gehienez 300 lagunekoa izango da

(**):18 urtez beherakoek parte hartu nahi izanez gero, zure gurasoen idatzizko baimena erantsi beharko dabe izen ematean.

4-. KATEGORIAK: Partearzailearen urteak, urteko abenduaren 31an eukiko duena izango da:

EMAKUMEAK: KADETEAK (15 eta 17 urte bitartekoak barruan)

EMAKUMEAK: JUNIOR (18 eta 20 urte bitartekoak barruan)

EMAKUMEAK: ABSOLUTUA

Sub kategoria helduak (40 urtetik gorakoak barruan)

Sub kategoria promesa (21 eta 23 urte bitartekoak barruan)

GIZONAK: KADETEAK (15 eta 17 urte bitartekoak barruan)

GIZONAK: JUNIOR (18 eta 20 urte bitartekoak barruan)

GIZONAK: ABSOLUTUA

Sub kategoria helduak (45 urtetik gorakoak barruan)

Sub kategoria promesa (21 eta 23 urte bitartekoak barruan)

5-. IZEN EMOTEA:

<http://www.deporbox.com/Evento/KARRAKA2012OROZKOMENDILASTERKETA-EUSKADIKOTXAPELKE>

www.itxinape.com web horrian egongo den lotura baten bitartez egingo da. Federatuak **20,- € eta gainerakoak 30,-€ ordaindu beharko dabe**. Izen emoteko epea maiatzaren 2an amaituko da edo 300 lagun apuntatuta dagozenez.

6-. KONTROLAK: Hiru kontrol egongo dira: Belangobueltan, Ipergortan eta Oderiagan. Korrikalariak benbora guztian markatutako bidetik joan beharko dabe. Korrikalariak ibilbidea egiteko 5 ordu eukiko dabe.

7-. JAN - EDATEKO LEKUAK: Egoki kokatutako bost jan / edateko postu egongo dira eta amaierakoa osoa izango da.

Ibilbidea parke natural batetik doanez, paperak edo edalontziak jateko / edateko postuetatik 100 metrora baino ezin izango dira bota . Arau hau betetzen ez dauena kanporatua izan daiteke.

8-. ERANTZUKIZUNAK: Istripuren edo okerren bat balego antolakuntzak ez dau bere gain hartuko. Beraz, parte hartzaileak (*berak edo beste bategaz izandakoak*) ezbeharren bat eukiko baleu, bera, eta ez beste inor izango da horren arduraduna.

9-. Parte hartzaile guztiek arau hauek bete beharko dabez. Araudi honek aipatzen ez dauena, Euskadiko Mendi Federazioko araudiaren arabera ebatziko da.

10.- Lasterketa amaieran dutxak eta aldagelak izango dira Orozkoko Kiroldagian.

